

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4372

AGINDUA, 2019ko irailaren 18koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita «Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria» 2019. urterako.

Zahartze Aktiborako 2015-2020 Estrategiak lege-erreferentziazat hartzen du Gizarte Zerbitzuen Legea, zeinak Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistema taxutzen baitu arretarako sare artikulatu moduan, helburutzat hartuta, pertsona, familia eta talde guztien integrazio sozialaren eta autonomiaren alde egitea, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-funtzioak garatuz. Hiru alor nagusitan banatzen da, eta horietako bat da «Lagunkoitasuna eta parte-hartzea ongizate-gizartea eraikitzeko garaian». Alor horren helburua da Euskadin lagunkoitasunaren paradigma orokortzea, eta zahartzen ari direnek prozesu horretan parte hartzen dutela eta prozesuko protagonistak direla bermatzea. Zehazki, ekintza boluntarioak eta lankidetzak komunitarioko parte-hartze mugimenduak sustatuko dira zahartzen ari diren pertsonen artean. Horrez gain, adineko pertsonen familia-arloan eman dituzten laguntza eta babesaren transferentzia baloratuko da, eta lagunkoitasun-prozesuak bultzatuko dira Euskadin.

Adineko pertsonen arloko lagunkoitasun-mugimendua Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) sustatu zuen 2005ean, Rio de Janeiroko XVIII. Gerontologia Batzarrean, Age-Friendly Cities izenpean. Horretarako, munduko biztanleriaren bi joeratan oinarritu zen: zahartze demografikoa eta urbanizazio-prozesua. Horren atzean dagoen teoria da 2002an definitutako Zahartze Aktiboa, osasun-, parte-hartze eta segurtasun-aukerak optimizatzeko eta pertsonak zahartu ahala bizi-kalitatea hobetzeko prozesu gisa definitu zena.

Beraz, OMEren arabera ingurune lagunkoia bizitza independentearen, zahartze aktiboaren eta autonomia pertsonalaren alde egiten du osasun-, parte-hartze eta segurtasun-aukeren optimizazioaren bidez, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin. Adineko pertsonen lagunkoia diren udalerritzat jotzen dira zahartze aktiboa sustatzen duten hiri-ingurune integratzaile eta irisgarriak. Udalerritza lagunkoiek beren egitura eta zerbitzuak berrantolatzen dituzte pertsona guztiei kalitate, segurtasun eta erosotasun ezin hobek eskaintzeko, haien gaitasunak edozein direlarik ere. Horrela, bizitza sozialeko alor guztietako parte-hartzea sustatzen dute.

Testuinguru horretan sortu zen «Euskadi Lagunkoia» proiektua. Enplegu eta Gizarte Politikak Sailaren ekimena da, herritarren eta sektore publikoaren, pribatuaren eta sozialaren parte-hartzea sustatzen duena Euskadin lagunkoitasunaren aldeko mugimendu bat garatzeko, eta, horrekin batera, zahartzen ari diren pertsonentzako bizitza-ingurune erraztaileak sustatzeko.

Kontuan hartuta Euskadin erakunde, organismo eta pertsona ugari egiten dutela lan lagunkoitasunaren arloan, agindu honen helburua da berrikuntza eta eraginkortasunagatik nabarmentzen diren jardunbide egokien balioa azpimarratzea adineko pertsonentzat ingurune erraztaileak sortuz lagunkoitasunaren arloan; izan ere, horretarako nahikoa aurrekontu dago 2019ko ekitaldira luzatu diren Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuetan.

Jardunbide bat egokitzat jotzeko, Unesco erakundeak Management of Social Transformation programaren (2003) esparruan jasotako proposamena hartzen da kontuan, zeinetan oinarrituko lau ezaugarri zehazten baitira gizarte-alorreko jardunbide egokiak identifikatzeko: berritzailea (kon-

2019ko irailaren 26a, osteguna

ponbide berri edo sortzaileak garatzen ditu); eraginkorra (hobekuntzaren gaineko eragin positibo eta nabarmena frogatzen du); jasangarria, dituen eskakizun sozial, ekonomiko eta naturalengatik (denboran zehar mantendu daiteke eta efektu iraunkorrak izan ditzake), eta errepikagarria (beste toki batzuetan politikak, ekimenak eta jarduketak garatzeko eredu izan daiteke).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako aurreikuspenak betetzeko, sari hau Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren 2019. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barnean sartzen da. Plan hori Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko martxoaren 5eko Aginduaren bidez onartu zen, eta 2019ko ekainaren 7ko Aginduaren bidez aldatu –gardentasun-atarian eta lehen aipatutako sailaren web-orrian argitaratua–.

Azaldutako guztia dela eta,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartzea «Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria» 2019. urtean emateko deialdia, aintzat hartuta onartzen diren oinarri erregulaztaileak eta ereduak –agindu honen I., II., III. eta IV. eranskinak–.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan aipatutako saria xedapen hauen menpe dago: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoa) VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarritzko araudia (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua).

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraz, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan jasotakoarekin bat etorriz. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46. artikuluetan ezarritakoa betez.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 18a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

I. ERANSKINA

LAGUNKOITASUNeko JARDUNBIDE EGOKIEN SARIAREN 2019KO DEIALDIAREN
OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Deialdi honen xedea da 2019ko Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria ematea, zeinaren bitartez publikoki saritzen baitira lagunkoitasunari begira berritzaileak eta eraginkorrak diren jardunbideak garatzen dituzten eta adineko pertsoneri begira ingurune erraztaileak sortzen dituzten erakunde publiko eta pribatuak.

Horretarako, lagunkoitasuntzat jotzen da hiri-ingurune integratzaile eta irisgarria osatzen saiatzen den faktorea, zahartze aktiboa sustatzen duena adineko pertsonen osasun-, parte-hartze eta segurtasun-aukeren optimizazioaren bidez. Horrela, pertsona horien parte-hartzea ahalbidetzen da bizitza sozialeko alor guztietan.

Bigarrena.– Sariak.

1.– Saria emango zaio balorazio onena lortzen duen jardunbideari, eta 3.000 euroko bidaia-poltsa bat izango da, erakunde sarituko hiru pertsonen lagunkoitasun-jardunbideak gauzatzen dituen erakunde bat bisitatu ahal izateko. Erakunde sarituak aukeratuko du bisita, eta saria emango duen organoari jakinaraziko diote hark onar dezan, betiere aukeraketaren arrazoiak behar bezala justifikatzen badira.

Bisita hori 2020. urteko lehenengo hiruhilekoa amaitu baino lehen egingo da, eta, hori egin eta gero, egindako bidaiaren balorazio-txosten bat emango dio saritutako erakundeak Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari.

2.– Halaber, bai saritutako jardunbidea bai oinarri hauetan jasotako lagunkoitasun-jardunbide egokiak betetzen dituzten hautagaitzak «Euskadi Lagunkoia» atariaren Jardunbide Egokien Katalogoan gehituko dira, eta atariarekin lotutako webgunean argitaratuko.

Aipatutako katalogoan sartzeak «Euskadi Lagunkoia Sarera» biltzea dakar, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak abian jarri baitu herritarren eta sektore publiko, pribatu nahiz sozialaren parte-hartzea sustatzeko eta lagunkoitasun-mugimendu bat sortzeko, zahartzen ari diren pertsonentzako bizi-ingurune erraztaileak sustatzeko. Horrez gain, plataforma erabilgarria da jardunbide egokiak eta esperientziak trukatzeko, beste eragileengandik ikasteko eta egindako aurrerapenak erakusteko.

3.– Sari hori ematea bateragarria da beste administrazio publiko batek edo erakunde pribatu batek emandako sariak lortzearekin.

Hirugarrena.– Hautagaitzak.

1.– Deialdi honetarako hautagaitza aurkeztu ahal izango dute EAeko administrazio publikoek, haien sektore publikoak osatzen dituzten erakundeek eta egoitza soziala EAEn duten eta jarduera nagusia bertan garatzen duten pertsona juridiko pribatuak.

2.– Deialdira biltzen diren erakunde guztiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskabidea aurkeztean:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

b) Dirulaguntzen itzulketagatik eratorritako betebeharrak ordainduta izatea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 21. artikuluan xedatutako baldintzetan –ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua–.

c) Ez izatea laguntza publikoak jasotzeko aukera ukatzen duen zehapen administratibo edo penalik, ezta laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duen legezko debekurik ere.

d) Ez izatea administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egitegatik, eta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, ez zaiela horrelako debekurik ezarri.

e) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako egoeretako batean.

Aurreko a) letran jasotako baldintza bete izanaren egiaztapena ofizioz egingo du Administrazioak, erakunde eskatzaileak egiaztapen horren aurka egin ezean; kasu horretan, erakunde horrek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu, egiaztapen horiek egiteko erakunde eskudunek eman beharko dituztenak.

Aurreko atalaren b), c), d) eta e) letretan jasotako baldintzen justifikazioa egingo da eskabide-formularioaren jasotako baldintzen arabera emango den erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.

Laugarrena.– Jardunbideek bete beharreko baldintzak.

Hautagaitzek lotura izan beharko dute adineko pertsonen begira lagunkotasun-jardunbide egokitzat jotzen diren jarduketekin, eta halakotzat joko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak deialdi honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztean:

1.– Bizi-ingurune erraztaileen alde egin behar dute honako esku-hartze alor hauetako batean edo gehiagotan:

- a) Kanpoko espazioak eta eraikinak.
- b) Garraioa.
- c) Etxebizitza.
- d) Parte-hartzea eta gizarte-ehuna.
- e) Errespetua eta inklusioa.
- f) Herritarren parte-hartzea eta enplegua.
- g) Komunikazioa eta informazioa.
- h) Gizarte- eta osasun-zerbitzuak.

2.– Unesco erakundearen «Management of Social Transformation» programaren (2003) esparruan zehaztutako baldintza hauetako bat bete beharko dute:

- a) Berrikuntza: konponbide berri edo sortzaileak garatzea.
- b) Eraginkortasuna: berrikuntzaren gaineko inpaktu positibo eta nabarmena frogatzea.
- c) Iraunkortasuna: eskakizun sozial, ekonomiko eta naturalengatik luzaroan mantendu daiteke eta efektu iraunkorrak izan ditzake.

d) Errepikagarria: beste toki batzuetan politikak, ekimenak eta jarduketak garatzeko eredu izan behar du.

3.– Ezarpen-fasean ala amaituta egon behar dute.

Bosgarrena.– Hautagaitzak aurkeztea.

1.– Hautagaitzak aurkeztu nahi dituzten erakundeek bitarteko elektronikoen bidez kontsultatu eta egin beharko dituzte prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Eskabideak aurkezteko epea bi hilekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

3.– Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria izango da deialdi honen organo kudeatzailea.

Seigarrena.– Eskabideen edukia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Erakunde hautagaiek bete beharreko eskabide-eredua oinarri hauen I. eranskinean dago, eta helbide honetan egongo da eskuragarri: http://www.euskadi.eus/premio_concurso/2019/premio-de-buenas-practicas-de-amigabilidad-2019/web01-a2gizar/es/ (Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa).

Eskabidea aurkezteak esan nahi du espresuki eta formalki onartzen direla deialdi honetako oinarrietan definitzen diren baldintzak.

2.– Eskabideari dokumentu hauek gehituko zaizkio:

a) Erakundearen legezko ordezkariak egiaztatzen duen dokumentazioa; betiere, eskabidea sinatzen duen pertsona Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan inskribatuta ez badago erakunde eskatzailearen ordezkari gisa, eta egiaztapen hori Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailean agertzen ez bada.

b) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zeinetan jaso beharko den hirugarren oinarriko bigarren paragrafoko b), c) eta d) letretako baldintzak betetzen direla. Oinarri hauen I. eranskinean jasotako eskabide-ereduaren barruan dago eta http://www.euskadi.eus/premio_concurso/2019/premio-de-buenas-practicas-de-amigabilidad-2019/web01-a2gizar/es/ helbidean (Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa) aurki daiteke.

c) Azalpen-memoria bat, saria eskuratzeko aurkezten den jardunbidearen ezaugarriak eta xehetasunak azaltzeko. Horrekin batera, aipatutako memorian jasotako informazioa egiaztatzeko beharrezko dokumentuak ere aurkeztuko dira, baita epaimahaiak baloratu beharreko zat jotzen direnak ere, saria lortze aldera.

Erakunde hautagaiek bete beharreko memoriaren eredu oinarrien II. eranskinean dago, eta eskuragarri egongo da http://www.euskadi.eus/premio_concurso/2019/premio-de-buenas-practicas-de-amigabilidad-2019/web01-a2gizar/es/ helbidean (Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa).

3.– Erakunde hautagaiek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete eskabidea eta dokumentazioa, aukeran. Halaber, prozedura guztian zehar, eskatzaileak aukeratu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutako moduan.

4.– Eskabideak oinarri hauetako baldintza guztiak betetzen ez baditu, osatugabea edo akas-tuna bada, erakunde interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean hutsa zuzentzeko edo nahitaezkoak diren dokumentuak aurkezteko; eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era presentzialean aurkezten bada eskabide hori, ezarritako bide elektronikoa baztertuta, elektronikoki aurkeztuta zuzentzeko eskatuko zaio. Horretarako, zuzenketa egin deneko eguna hartuko da eskabidearen aurkezpen eguntzat.

5.– Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa:

Zazpigarrena.– Epaimahaia.

1.– Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Batzordeburua:

– Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

Bokalak:

– Pilar Sorando andrea, Zahartzaroa-Geriatría eta Gerontologia Euskal Elkarteko lehendakaria.

– Koldo Aulestia Urrutia jauna, AFAGI-Alzheimer Gipuzkoako lehendakaria.

– Beatriz Gazquez Delgado andrea, 3D Social Movement-eko kudeatzailea.

– Jose Manuel Odriozola jauna, Euskadiko Pentsionisten eta Erretiratuen Elkarte Probintzialen Lurralde Federazioaren lehendakaria (EUSKOFEDERPEN).

– M.^a Jesus Goikoetxea Iturregui andrea, Giza Eskubideetan doktorea eta Psikologia eta Teologian lizentziatua (Deustuko Unibertsitatea).

Idazkaria:

– Saioa Landa Ayo, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria; ez du botorik izango.

2.– Epaimahaiaren jarduerak eta epaimahaikideen abstentziorako eta ezespenerako araubideak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea izango dute arau.

Zortzigarrena.– Balorazio-irizpideak:

1.– Esleipen-proposamena prestatzeko helburuarekin, honako irizpide hauen arabera balioetsiko ditu epaimahaiak hautagaitzak:

a) Jardunbidearen irizpide orokorrak, baremo honen arabera (gehienez 33 puntu):

• Ekintzaren garrantzia: 0 eta 3 puntu arteko eskala.

• Ezarpen-gradua: 0 eta 3 puntu arteko eskala.

• Adineko pertsonen parte-hartze aktiboa haren garapenean: 0 eta 3 puntu arteko eskala.

● Jardunbidearen deskripzio egokia: 0 eta 3 puntu arteko eskalarekin balioetsiko dira honako atal hauek:

- Xedeak.
- Metodologia.
- Emaizak.
- Ebaluazioa.
- Berrikuntza.
- Inpaktua.

Iraunkortasuna.

- Errepikagarritasuna.

b) Jardunbide egokiak balioesteko irizpideak: honako irizpide hauen betetze-maila balioetsiko da, baremo honen arabera (gehienez 21 puntu):

- Berrikuntza:

Ez dauka elementu berrizailerik: 0 puntu.

Konponbide berria da; jardunbideak erantzuna ematen dio dagoeneko planteatu den arazo bati: 1 puntu.

Ikuspegi berritzailea du; jardunbideak erantzuna ematen dio arazo ezagun bati, ikuspegi edo metodologia berritzaile batekin: 2 puntu.

Idea berritzailea da; jardunbideak erantzuna ematen dio aurretik planteatu ez den arazo bati: 3 puntu.

- Eraginkortasuna:

Frogatutako eraginik gabe: 0 puntu.

Inpaktu baxua; jardunbidea martxan zen artean baino ez da neurtu inpaktua: 1 puntu.

Erdi-mailako inpaktua; inpaktua jardunbidea amaitu eta denbora gutxira soilik neurtu da (hurrengo 3 eta 6 hilabeteen artean): 2 puntu.

Epe luzeko inpaktu jasangarria; inpaktua jardunbidea amaitu eta denbora gutxira neurtu da (bukatu eta 6 hilabete geroago): 3 puntu.

- Iraunkortasuna:

Ez da planteatzen jardunbidearekin jarraitzea: 0 puntu.

Jasangarritasunari begira potentzialtzat jotzen da; jardunbidea duela gutxi hasi zen edo abian dago, eta potentzialki jasangarria da: 1 puntu.

Jasangarritasun organikoa du; herritar hartzaileak gai izan dira jarraitutasuna era autogestiona-tuan emateko. 2 puntu.

Ezarrita dago; jardunbidea finkatuta dago, eta zenbait urtetan funtzionatu du: 3 puntu.

- Erreplikagarritasuna:

Jardunbidea ez da sistematizatu beste toki batzuetan errepikatzeke: 0 puntu.

Jardunbidearen prozesua sistematizatu da errepikatu ahal izateko, baina, hala ere, ez da transferitu: 1 puntu.

Jardunbidea EA Eren barruan transferitu da: 2 puntu.

Jardunbidea EA Etik kanpo transferitu da: 3 puntu.

2.– Saria jaso ahal izateko gutxienez 20 puntu eskuratu beharko dira.

Bederatzigarrena.– Sariaren epaitza.

1.– Epaimahaiak, hautagaitzak aztertu eta balioetsi ondoren, saria emateko proposamen bat egingo du, eta, horrekin batera, hartutako erabakia justifikatuko duten arrazoien berri emango du. Ondoren, deialdi hau ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio, hots, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari.

2.– Epaimahaiak deialdia huts deklaratzeko proposamena egingo du honako kasu hauetan:

a) Hautagaitzek ez dituztenean betetzen aginduan jardunbide egokiei begira zehaztutako baldintzak, laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

b) Proiektu batek ere ez duenean erdietsi saria jasotzeko gutxienezko puntuazioa, zortzigarren oinarriaren bigarren apartatua zehaztutakoa.

3.– Epaimahaiaren proposamena ikusi ondoren, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak agindu bat emango du, saria emateko edo deialdia huts deklaratzeko, hilabeteko epean gehienez ere, hautagaitzen aurkezpena amaitu zenetik. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta http://www.euskadi.eus/premio_concurso/2019/premio-de-buenas-practicas-de-amigabilidad-2019/web01-a2gizar/es/ helbidean argitaratuko da (Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa).

Halaber, ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaie deialdian parte hartu duten pertsona guztiei, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bitartez.

Aurrekoa eragotzi gabe, organo kudeatzaileak bere esku izango du interesdunei jakinarazpenen abisua bidaltzea SMS edo posta elektronikoko mezuen bidez, eskabidean adierazitako telefonoetara edo posta elektronikoko kontuetara. Abisu horiek inoiz ere ez dira jakinarazpentzat hartuko.

4.– Saria emateko edo deialdia huts deklaratzeko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren agindu horrek bukaera ematen dio administrazio-bideari, eta, aurka egiteko, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Nahi izanez gero, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hamargarrena.– Saria onartzea.

1.– Saritutako erakundeak idatziz eta beren-beregi adierazi beharko du saria onartzen duela, esleipen-ebazpena argitaratu eta hiru egun balioduneko epean. Horretarako, deialdi-agindu honen IV. eranskinean jasotako eredia erabili beharko du, zeina Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean baitago.

2.– Saria onartu ezean, ulertuko da uko egin zaiola, eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak agindua emango du, sariari uko egin zaiola deklaraturik eta saria emanaz balorazio oneneko hurrengo hautagaitzari, oinarri honen lehen paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik.

Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta http://www.euskadi.eus/premio_concurso/2019/premio-de-buenas-practicas-de-amigabilidad-2019/web01-a2gizar/es/ helbidean argitaratuko da (Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa). Horrez gain, elektronikoki jakinaraziko zaie erakunde sarituari eta deialdian parte hartu duten gainerako hautagaiei, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez.

3.– Bi hautagaitza onenek ez badute saria onartzen, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak huts deklaratu du deialdia, agindu bidez. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta http://www.euskadi.eus/premio_concurso/2019/premio-de-buenas-practicas-de-amigabilidad-2019/web01-a2gizar/es/ helbidean argitaratuko da (Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa). Horrez gain, elektronikoki jakinaraziko zaie deialdian parte hartu duten hautagaiei, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez.

Hamaikagarrena. – Saria ematea.

1.– Ekitaldi publiko batean egingo da sari-banaketa, banaketaren eguna erakunde sarituari behar besteko aurrerapenez jakinarazi eta gero. Ekitaldi horretara bertaratu beharko da erakunde horren legezko ordezkari bat, eta hark labur azalduko ditu aurkeztutako jardunbidearen xehetasunak eta hari emango zaio 3.000 euroko txekoa erakunde sarituko kide diren hiru pertsonen bisita bat egin dezaten, bigarren oinarrian jasota dagoen bezala.

Legezko ordezkariak ezin badu parte hartu ekitaldi horretan (justifikatutako arrazoiengatik), aldeztu aurretik beste pertsona bat izendatu beharko du bere ordezkari izateko, eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari pertsona horren datuak bidaliko dizkio.

2.– Saritutako erakundearen legezko ordezkaria edo haren ordezkari izendatua ez bada agertzen sari-banaketara, saria hutsik deklaratu da automatikoki, eta, formalki, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren agindu baten bidez emango da egoera horren berri.

2019ko irailaren 26a, osteguna

II. ERANSKINA

ESKABIDEA

ORGANO INSTRUKTOREARI ZUZENDUA
GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARITZA

JARDUNBIDEAREN EDO JARDUKETAREN IZENA

ERAKUNDEAREN DATUAK							
ERAKUNDEAREN IZENA					IFK		
Erakundearen helbidea							
Kalea			Blokea	Zk.	Solairua	Aldea	Atea
PK	Udalerria		Lurraldea				
Telefono finkoa		Telefono mugikorra		Helbide elektronikoa			
HARREMANETARAKO PERTSONA							
Izen-abizenak		Helbide elektronikoa			Harremanetarako tfnoa.		

JAKINARAZPEN, KOMUNIKAZIO ETA ABISUEN HIZKUNTZA
<input type="checkbox"/> Euskara <input type="checkbox"/> Gaztelania

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO KANALA
Bide elektronikotik: «Nire karpeta»ko jakinarazpen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira.

JAKINARAZPEN-ABISUAK JASOTZEKO DATUAK
Posta elektronikoa: Telefono mugikorra:

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Adierazten dut ezen erakunde eskatzaileak:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Dirulaguntzen itzulketagatik eratorritako betebeharrak ordainduta dituela, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 21. artikuluan xedatutako baldintzetan –ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua–.
- Ez duela laguntza publikoak jasotzeko aukera ukatzen duen zehapen administratibo edo penalik, ezta laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duen legezko debekurik ere.
- Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako egoeretako batean.
- Ez duela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egitegatik, eta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, ez zaiela horrelako debekurik ezarri.
- Benetakoak direla eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokidan erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

BAIMENAK

- Baimena ematen dut proiektua Euskadi Lagunkoia web-orrian argitaratu dadin.

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozeduraren instrukzio-organoak honako datuok zuzenak diren egiaztatuko du administrazio eskudunari galdetuta:

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharrak egunean edukitzea (Foru Aldundiei galdetuta).

Gizarte Segurantzako ordainketa-betebeharrak egunean edukitzea (Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari galdetuta).

- EZ DUT NAHI prozedura honetako instrukzio-organoak ofizios ez er egiaztatzerik (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Horren aurka eginez gero, aipatu erakunde eskudunek igorritako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

III. ERANSKINA

PROIEKTUAREN AZALPEN MEMORIA

PRAKTIKAREN IZENA**JARDUN ARLOAK**

Aukeratu programaren eragin-arloa/k:

- | | |
|--|--------------------------|
| Kanpoko espazioak eta eraikinak | <input type="checkbox"/> |
| Garraioa | <input type="checkbox"/> |
| Etxebizitza | <input type="checkbox"/> |
| Parte-hartzea eta gizarte-ehuna | <input type="checkbox"/> |
| Errespetua eta inklusio soziala | <input type="checkbox"/> |
| Herritarren parte-hartzea eta enplegua | <input type="checkbox"/> |
| Komunikazioa eta informazioa | <input type="checkbox"/> |
| Gizarte- eta osasun-zerbitzuak | <input type="checkbox"/> |

ERAKUNDE SUSTATZAILEAK

Ekintza garatzen inplikaturik dauden erakundeak.

ERAKUNDE MOTAK

Publikoa Pribatua

NORI ZUZENTZEN ZAION

Norentzat den.

2019ko irailaren 26a, osteguna

LURRALDE-EREMUA*Non egiten den eta lurralde-estaldura.*

- Toki-esparrua:
- Lurralde-maila
- Euskadi
- Espainia
- Nazioartea

ESPAINIA*Ekimenaren egungo egoera.*

- Ezarpen-fasean
- Amaituta

Hasiera-eguna: Hila eta urtea*Bukaera-eguna:* Hila eta urtea**GAKO-HITZAK****DESKRIBAPENA***Praktikaren deskribapena (gehienez 6.000 karaktere).*

2019ko irailaren 26a, osteguna

HELBURUAK

Proiektu edo ekimenaren helburu orokor eta espezifikoak (gehienez 6.000 karaktere).

METODOLOGIA

Zehatz deskribatu ekimena, diseinurako erabilitako metodologia, plangintza eta abian jartzea, ezarpen-faseak, eragile parte-hartzaileak, garapen-egutegia, eta abar (gehienez 6.000 karaktere).

2019ko irailaren 26a, osteguna

ADINEKO PERTSONEN PARTE-HARTZEA

Adineko pertsonek rol aktiboa dute ekimenaren garapenean? Parte hartu al dute planteamenduan, diseinuan edo abian jartzean? (gehienez 3.000 karaktere). Ez Bai, Nola?


EBALUAZIOA

Deskribatu praktika ebaluatzeko baliatu edo aurreikusi den metodoa eta zer teknika-mota erabili den (gehienez 3.000 karaktere).


2019ko irailaren 26a, osteguna

ELEMENTU BERRITZAILEAK

Deskribatu praktikak jaso dituen elementu berritzaileak edo konponbide berri edo sortzaileak, kontuan hartuta praktikak erantzuna ematen dion aurretik inoiz planteatu ez den arazo bati, ikuspegi edo metodologia berritzaileak erabiltzen dituen eta/edo konponbide berri bat proposatzen duen arazo ezagun bati begira (gehienez 3.000 karaktere).

**INPAKTUA**


Deskribatu hobekuntzaren gaineko eragin positibo eta nabarmena, eragina frogatu ahal izan bada edo neurketa egin den praktika abian zegoen bitartean, amaitu eta denbora gutxira edo proiektua amaitu ondoren, neurketa egin zen denbora-epea zehaztuz (gehienez 3.000 karaktere).




2019ko irailaren 26a, osteguna

IRAUNKORTASUNA

Praktikaren iraunkortasunaren deskribapena, kontuan hartuta jarraitzea aurreikusten den, nola izan daitekeen iraunkorra baliabideei begira, biztanleriak gaikuntza jaso duen jarraitutasuna emateko era autogestionatuan, edo proiektua finkatu den (gehienez 3.000 karaktere).

**ERREPIKAGARRITASUNA**


Deskribatu nola errepikatu duten praktika beste toki batzuetan, edo/eta prozesua sistematizatu den beste toki edo eskualdeetara transferitu ahal izateko (gehienez 3.000 karaktere).



2019ko irailaren 26a, osteguna

AITORPENAK

Zehaztu jardunbide egokiak saririk edo aintzatespenik jaso duen (gehienez 3.000 karaktere).

**ERANSKINAK ETA ESTEKAK**

Adierazi Euskadi Lagunkoia Sareari bidalitako beste material batzuen zerrenda, baita proposatutako ekimenari buruzko informazio osagarria jasotzen duten estekak ere (argazkiak, bideoak, memoriak, liburuxkak, eta abar).

**WEB-ORRIA / BLOGA**

Egin klik testua idazteko.

2019ko irailaren 26a, osteguna

IV. ERANSKINA

SARIAREN ONARPENA

..... jaunak/andreak,
NAN/AIZ

..... erakundearen legezko ordezkaria den aldetik

ADIERAZTEN DU:

- 1.– erakundeari jakinarazi zaio Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko ren (e)ko Agindua, zeinaren bidez ematen baita «Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria» 2019. urtean.
- 2.– Saria onartzen du esleitutako zenbateko eta baldintzetan, eta hitzematzen du beteko dituela deialdiko bigarren eta hamaikagarren oinarrietan eta aplikagarriak diren gainerako xedapenetan zehaztutako betebeharrak.
- 3.– Baimena ematen du bere erregistro grafikoak nahiz ikus-entzunezkoak, irudiak eta grabazioak bildu eta erabiltzeko, betiere zerikusia baldin badute deialdi honetan parte-hartzearekin edo sariaren banaketarekin.

Tokia, data eta sinadura